

euskaldunon istorioak



1937an Bilbon sendia banatu aurretik egindako sendi osoko argazkia. Ez dago sendi osoaren beste argazkirik. Argazkia: Sendiko artxibokoa

‘Luzear’ek bizitza euskararen alde eman zuen, gaztetatik hasi zen idazlanetan, euskeraren aldeko borroka izan zen beti bere jarduera nagusia

Jonan Zinkunegi Arzelusen erreportajea

Luzear, euskara eta aberria

ANDER Arzelus Toledo, 1898-08-15ean, Donostian jaio zen. Bere aita Andrés, Arana Goiritar Sabinen hasierako jarraitzaileetakoa zen, Ander kristau eta abertzaletasun giro hartan jaio zen. Ama Naxari Toledo, biok donostiarrak. Amabi senideren artean bera zen zaharrena. Merkataritza Ikasketak Marianistetan egin zituen 16 urte arte. Etxean hainbeste umerekin ez zuten ekonomikoki garai ona, naiz eta bere gogoa ingeniariaritzan ikasketak egitea izan, Donostiako Kutxan hasi behar izan zuen lanean eta bere soldata garrantzizkoa izan zen sendiarentzat. Bertan jardun zuen 1936an guda hasi zen arte. 1923-01-26an, Amalia Arrietarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten: Amale, Itziar, Ander eta Iñaki.

Idazle, euskaltzale Luzear gazte zela, beste gazte abertzale batzuekin biltzen zen eta Euskadiren eta euskararen aldeko lanetan hasia zen. Euzko Gaztedik eta GBBek argitara-

tutako *Gipuzkoarra* aldizkarian lehenengotako idazlanak argitaratu zituen. 1920an, esaterako, politikan emakumeek ere parte hartu behar zutela defenditu zuen sutsuki.

Egunkari bat euskaraz egiteko asmoarekin lanean aritu zen baina proiektuak ez zuten aurrera egin, haatik, euskal aldizkariaren ideia *Argia* asterokoarekin gauzatu zuten 1921ean. ‘Argia’ren fundatzaileetako bat izan zen, Zatarain, Leizaola, Mujika, Garitaonandia, Inzagaray eta Carrerakin batera. Bertan *Euskalerriko berriak* kudeatu zuen. Zutabe-idazle aurrekaria izan zen *Luzear*; hor daude erreportajeak: Lizarrako bilera politikoa, Ama Birjina Ezkion agertu dela, Olerti Eguna, Antzerki Eguna edo Txirritaren omenaldia dela, han dago *Luzear* gehienetan bere kontu joanda, ikusi duenaren kontakizuna egiten; eta hor daude antzerkitxo laburrak, ipuintxoak eta abar berak sortutakoak edo beste hizkuntza batetik berak egokitutakoak. Adibidez,



Ander eta Amalia ezkontza 1923-01-26an. Argazkia: Sendiko artxibokoa

Charles Dickens *Eguarri abestia* itzuli eta *El Día* egunkarian zatika argitaratu 1931an.

Hasieran isilka, 1926an Elgoibarran, gero Mutrikun eta Arrasaten *Euskaltzaleak* erakundea erne nahirik zebiltzan, Zumarragan eta

Andoainen Euskal-Egun gartsuak ospatu ondoren, azkenez Zumaian jarri ziran 1930ean elkarte onen oinarriak. Tartean ziran Lizardi, Urreta, *Luzear* ta besteak. Lizardi izan zen lehenengo buru, M. Urreta hurrengo urtean. 1934an Telesforo Monzon izendatu zuten lehendakari. Alde berean Euskal idazleak izeneko batzorderako, Ander Arzelus *Luzear* eta P. Teletxea aukeratu zituzten.

1927tik aurrera *Txistu*, haurrentzako aldizkaria komikiz eta ipuinez betea, *Argiarekin* batera banatua izan zen, lehenengo alea 1927an argitaratu zen. 1929an, Garitaonandia zenduta, bera *Argiako* zuzendaria izan zen garai labur batean, segidan 1930an *El Día* egunkarian euskal orriaren arduraduna izendatuta, bere ahaleginak, gehienbat, euskal idazleak animatu, lanean jarri eta bertan argitaratzea izan zen, bere idazlanak ere argitaratu ohi zituen.

Politikari Ordurarte, militante politikoa baino gehiago euskararen alde-

ko borrokalari sutsua izan zen baina 1930an eman zuen izena EAJ alderdian. Hain zuzen ere, diktadura osoan barrena bananduta egon ziren alderdiko bi sektoreak, Comuñon eta Aberri, atzera bildu ziren urtean, bera Aberri aldekoa izan zen beti. Afiliatu zenean konpromezu osoz, buru-belarri, egin zuen, eta 1935ean GBBko kide egin zuten Zumarragan.

1936ko irailean, Donostia erortzean, Ander Arzelus, J. A. Agirre, F. Basterretxea eta J. Ajuriagerrarekin batera, hegazkina hartu eta Madrilera egin zuten, nahiko bidaia arriskutsua, Burgosen matxinatuen gainetik pasatu behar izan zuten. Madrilen, Largo Caballeroaren gobernuarekin negoziatu zuten Euskal Estatutua. Urriaren 7an eratu zen Eusko Jaurilaritza, Gernikan. Arzelus bertan zen.

Irratian Bada *Luzear*en artikulua bat 1931ko irailean *El Pueblo Vascon*, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa laburtzen duena, honela zion: *IRUDIPEN ZOROAK*. “Antzokia! (Teatro). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radio). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak. Jakiña, gauza guzitarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik ezpadator...”(sic).

Hiru zutabe horiek ikusten ditu beharrezkoen, egunkariarenaz gain, euskaltzaletasuna zabaltzeko. Antzerkian aurrera egin zuten, Zinema huts egin zuten, zezakeenak ez baitzuen eskurik zabaldu, baina irratigintzan lortu zuten “irudipen zoro” hori Aurrera ateratzea: 1932an Radio San Sebastianen, J. Zubimendirekin asteazkenero, ordubeteko euskal irratsaioa antolatatu zuten. Amalek honela zion: “Oso irratsaio politikak eta atseginak izaten ziran. Inguruko herrietatik etortzen ziran eta abestu eta abar egiten zuten”.

‘PROPAGANDA’ Luzearrek eratuta koetan, askotan bere alaba Amale izaten zen aurkezle. *Euskal irakasbidea* ere prestatu zuen irratirako eta ematen hasi ere. Irratsaioak 100dik gora izan ziren, baina 1934ean gobernuak debekatu zituen, naiz eta euskal-kulturatzaz izan, “nazionalisten” propaganda zela ta...

Poxpoliñak Amalek zion: “Leengo Kursaal-en azpian, Labordatar Ramón apaizak, beste batzuen laguntzaz noski, Luzear eta Elbira Zipitria besteak beste, aurrak biltzeko sortu zuten Poxpoliñak erakundea. An biltzen zan aur pilla! Euskaraz abestu, itz egin, baita dantza ere ikasten genuen, dio Amalek; guzia jolasen bidez. Antzetzokia ere ba zan eta antzerki saioak izaten ziran bertan” (sic). Besteak beste, “Neskamearen marmarrak” izeneko bakarhizketa idatzi zuen Luzearrek, bere alabak antzetzeko. Bakarhizketa oso polita eta barregarria zela zion Amalek.

“Bernaiñoren larriyak”, “Kirtenen gauzak”, “Exkonberri-ameslari” ere badira idazle donostiarrak garai hartan idatzitako antzezlan batzuek. 1929an *Gibelaundi* elkarhizketa, hau argitaratu. 1934an enkargu bat har-

euskaldunon istorioak

tu zuen. *El libro de oro de la Patria* izeneko liburu bereziko artikulua bat idaztea. Bere idazlana *Euzkadi, agur!* izenburupean. 1935an, Beñat Estornes Lasaren *Historia Vasca* euskaratu zuen *Euskal-edestia* izenburupean.

Bere sendia, emaztea eta 4 seme-alabak, Donostia erortzeaz zela, Zarautza egin zuten aita non zebilen jakin gabe. Ander Madrildik itzuli zenean, Bilbon bukatu zuten. Han egon ziren Bilbo frankistak menperatu arte. Bilbon, *Eguna*, lehenengo euskal egunkariaren sorreran aritu zen, baita Bilbo Irratian euskal saiok antolatzen, bere bi alabek, Amalek eta Itziarrek ere parte hartu zuten. Egunero Euskal Gobernuaren boletina euskarara itzultzen zuen.

Frankistak Bilbo suntsitzeaz, sendiak *La Habana* itsasontzian Iparraldera ihes egin zuten. Bera, alderdiko buru batzuek eta gudariek, Santander aldera. Santoñako hitzarmenaren ondorioz, preso jausi zen. Lehendabizi El Dueso penalean. Handik Bilboko Larrinaga espetxera eta bertatik Burgosko Prisión Centralera; 5 urte terdi egin zituen espetxetan, haietatik bi bat heriotza zigorpean.

METODOAK Garai hartan ere bere euskarerikiko lanetan jarraitu zuen, El Dueson, kartzela kideen animoak berotzeko, Luzearrek eta S. Rada musikari bilbotarrak, espetxeratuaren ereserkia konposatu zuten. Burgosen, euskara erakusteko metodoak egin zituen, haietako bat Amale, bere alabak erabili izan zuen helduentzat eman ohi zituen ikastarotan 1990era arte. Antzezlanak ere, *Kilkir-Abestia*, *Gonagorritxo* eta *Marakaxarra*, hauek Lucarini kartzelakide anarkistaren marrazki ederrekin osatuta. Opera bat ere, *Kilkir-Abestia*, (*Dickensen The Cricket on the Hearth*); musika, Bilbotar F. Bengoarena. Hiru ekitaldiko drama *Dirugosea* antzerkia ere.

Abestiak: E. Errazkinen musika, F. Martiarenaren harmonizazioa eta Anderren letrarekin: Maitetxo, Nere emazteari, Ene Aberria! eta Maitasuna izenburupean. Espetxeko orfeoira ere idatzi zituen. Espetxetik irtenda, atzerriratua izan zen eta Madrilen bizi izan ziren urte terdi inguru. Han ere alderdiko lanetan haritu zen bere lagun Joseba Rezolarekin batera.



Burgosko espetxean (nik ezagutzen ditudan hiru dira, ezkerrean zutik Luzear eta aurrean eta erdian Ajuriagerra eta Rezola, nire ustez, besteak ez dakit nortzuk diren). Argazkia: Sendiko artxibokoa



Baionan 1949an, bere idazlanetan. Argazkia: Andoni Zinkunegi-sendiko artxibokoa

1945ean, Donostiratu ondoren, isilpean noski, Donostialdeko EAJko arduraduna izendatua izan zen. Bere euskarerikiko lanetan jarraitu zuen ere, gazteak biltzen eta antzerki talde bat antolatu zuen, bere alaba Amale bertan zela. Bere ekintzak ez ziren hain erosoak beti, egun batean bere lagun Rezola, Madrilen atxilotu ondoren, Irunera zeramatera trenetaz eta askatzen saiatu behar zutela, horretarako ihes antolatuta zuten: Rezola zekarkieten trenean, Hernaniko geltokian mozkor bat sartu zen, balantzaka zeharkatu zuen bagoia, Joseba Rezolak ezagutu du adiskidea, Luzear da. Donostiako Norteko estaziora iritsi baino lehen Ander bertsotan hasi eta Rezolari adierazi zion trena geratu baino lehen bagoitik salto egin behar zutela, biok batera, erresistentziako kideak zain zeukatela kanpoan. Oso



Zinkunegiren liburuaren azala.

bizkor gertatu zen ihesa, Donostian gordeta egon zen Joseba Ziburura ihesi arte.

Hau gertatu zenetik Poliziak ber-



1946an ihesita zela, bibotea utzita, bere hiru emakumeekin, emaztea Amalia eta bi alabak, Itziar eta Amale. Argazkia: Sendiko artxibokoa



'Luzear' 1948 inguruan. Argazkia: Sendiko artxibokoa

tatik jarraitu zuen. Beraz, azkenik, ihes egin behar izan zuen berak ere. Polizia San Jeronimo kaleko bere etxera joan zenean, Ander, etxe gaineko teilatutik ondoko etxera pasatu eta gau osoa Portu kaleko auzokide batzuen balkoian pasa ondoren, egunsentian ihes egin zuen. Donostian isilpean ezkutaturik jarraitu zuen denboraldi bat eta 1946 bukaera aldera, iparraldera pasa zen, han ia hiru urte egin zituen, Donibanen eta Baionan. EBBko lehendakari ordea izan zen garai hartan, han bere lagun Joseba Rezolarekin, ixilpeko Euzkadi Irratiko zuzendaria eta euskal irratsaioen arduraduna izan zen. Bere idazlanetan jarraitu zuen eta *Alderdi* aldizkari kontseiluan egon zen, *Euzko Deya* aldizkarian hainbat artikulua idatzi zituen.

1949-08-27an, 51 urte bete berri

IDAZLEA

JONAN ZINKUNEGI ARZELUS

1951-02-12an Donostian jaio zen, 'Luzear' ren biloba. Delineatzaile eta argazkilaria. Idazlea ez izan arren, bere bi aitonen eta amaren jardueraren bildumak landu eta argitaratu ditu.



zituela, Baionan, Beiris-eko Ville Antoinette-n zendu zen. *Luzear* hil zenaren berria arin hedatu zen donostiarren artean, eta frankistek, beren aldetik, abertzale honen ehorzketa eta hiletak oztopatzeko planak egin zituzten. Familiakoak Irungo Santiagoko zubitik zerraldoa zekarren autoa Donostiako hilerri-raino lagundu zuten. Hilerrian, poliziek, ez zuten gorpua ehorzten utzi, lurperatzea biharamunean egingo zela esanaz. Haatik, goizez familiaretekoak hilerrira bertaratu zirenean, goizeko 7ak aldera ehortzita izan zela jakin zuten, lekuko bakarrak poliziaz, lurperatzaileak eta hauek aukeratutako apaiza izan zirelarik. Santa Mariako elizan hiletak goizeko 10etan prestatu bazuten ere, erretore jaunak hileta goizeko 8,30tan egingo zela adierazi zion familiari, gobernadoreen aginduz. Hau jakinda, familiak Radio San Sebastianera deitu zuen, hiletaren ordu aldaketaren berri eman zuten eskatuz. Anjel Molina irratiko zuzendariak, *Luzear* oso ezaguna zenez, familiaren eskaera onartu eta hiletaren ordu-aldaketaren berri eman zuen irratiz. Onen ondorioa Molina jaunari hamar mila peztako isuna izan zen gobernadorearen aldetik.

Asko izan ziren goizeko 8:30tan Santa Mariara bildu ziren lagunak. Gainera, familiak beste hileta bat antolatu zuen, goizeko 11etan, Karmeldarren elizan. Anderren semeek eta suhiak, Santa Mariara 10etan irixten zirenak Karmeldarrenera bideratzen zituzten, eta era honetan, hileta bakar baten ordezkari izan zituen azkenik *Luzear*ek, euskal kazetarion aitzindari nagusiengotakoak. ●

CLICK:sabinoarana.eus

ATEAK ZABALIK PUERTAS ABIERTAS

LAU

HAIZETARA

Erabateko sarbidea gure eduki digitaletara:

artikulu historikoak, argazkiak, agiritegiko dokumentuak, biografiak,

ikus-entzunezkoak...

Acceso libre a nuestros contenidos digitales:

artículos históricos, fotografías, documentos de archivo, biografías, audiovisuales...

